**Orri kopurua** / Nº de páginas: 3

**Data** / Fecha: 2025-10-01

# PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

17:00etan alkateak ohiko zinta moztuko du, magia saio bat eta mokadu txiki bat izango dira

## Algortako Hezetasuna auzoko Arene kaleko parke berria ostiralean zabalduko da

A las 17:00h habrá el habitual corte de cinta por parte de la alcaldesa, una sesión de magia y un pequeño lunch

## El nuevo parque de la calle Arene, en el barrio La Humedad de Algorta, se abrirá al público este viernes

Algortako Hezetasuna auzoak dagoeneko parke berri bat du Arene kalean eta hori ostiralean, urriak 3, 17:00etan, zabalduko dute. Irekiera ekitaldian Amaia Aguirre Getxoko alkatea eta Janire Ocio, Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia izango dira, besteak beste. Parkeak lau gune bereizi izango ditu, haurrentzako jolasekin eta adin guztietarako kirola egiteko elementuekin.

Gure herritarren gozamenerako eta ongizaterako pentsatutako espazio berri bat da eta auzotarren eskaerei erantzuten die. Izan ere, obra gauzatzeko aurrekontua milioi bat eurotik gorakoa izan da, eta 446.000 euro 2023ko Partaidetzazko Aurrekontuen kargura joan dira, haurrentzako jolas-gunearen estalki handiaren kostua ordaintzeko.
Amaia Aguirre alkateak nabarmendu du

El barrio La Humedad, en Algorta, cuenta ya con un nuevo parque en la calle Arene, que se abrirá al público este viernes, día 3 de octubre, a las 17:00h, en un acto que contará con la presencia de la Alcaldesa de Getxo, Amaia Aguirre, y la concejala de Infraestructuras, Obras y Servicios, Janire Ocio, entre otras personas. El parque dispone de cuatro zonas diferenciadas que integran juegos infantiles y elementos para la práctica deportiva dirigidos a todas las edades.

Es un nuevo espacio pensado para el disfrute de la ciudadanía y responde a las demandas de las y los vecinos de la zona. De hecho, del presupuesto de ejecución de la obra, que ha superado el millón de euros, 446.000 han sido a cargo de los Presupuestos Participativos de 2023, para sufragar el costo de la gran cubierta de la zona de juegos infantiles.
La alcaldesa Amaia Aguirre ha destacado que

Getxo
bizi ezazu

"*Hezetasuna auzoko parke berri honekin, aurrera egiten jarraitzen dugu irisgarriago, modernoago eta adin guztientzat pentsatutako Getxorantz. Udalerrian 45 haur-parke ditugu, eta hau, Arene parkea, herritarren lankidetzak eta Aurrekontu Parte-hartzaileek bizilagunen eskarietatik sortutako proiektuak nola gauzatzen diren erakusten duen adibidea da. Gure herritarren gozamenerako eta ongizaterako sortutako Arene parke berriak haur jolasak eta adin guztientzako kirola egiteko elementuak biltzen ditu, auzoan dagoen aisialdi eskaintza zabalduz. Gainera, elkartzeko eta elkarbizitzarako gunea izan nahi du. Herritarrak gonbidatzen ditugu bere egitera, zaintzera eta gozatzera, Hezetasuna auzoko egunerokotasunaren parte gisa*".

Parkea ostiralean, 17:00etan, inauguratuko da, agintariek egingo duten zintaren ohiko mozketarekin, ohorezko aurreskuarekin, magia saio batekin eta mokadu txiki batekin.

**4 eremu bereiziak**

Ekipamendu berriak 1.370 m2-ko azalera du, ondo mugatutako lau gunerekin*:* horietako bi, estaliak, haurrentzat bakarrik izango dira, eta jolasak izango dituzte, hala nola txirristak, zabuak edo igotzeko egiturak; hirugarren batek kirol anitzeko pista bat hartuko du, eta laugarrenean, kalistenia gune bat eta beste kirol elementu batzuk egongo dira adin guztietarako eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, beren egoera fisikoaren arabera ariketa desberdinak erraz egin ahal izateko.

-Parkeko 1. zonan kirol anitzeko pista bat egongo da, 22x12 metrokoa, saretarekin itxitako ateekin eta saskiekin. Pistak alboetako sarbide inklusiboak eta belar

*"Con este nuevo parque en el barrio de La Humedad, seguimos avanzando hacia un Getxo más accesible, moderno y pensado para todas las edades. Contamos con 45 parques infantiles en el municipio, y este, el parque Arene, es un ejemplo de cómo la colaboración ciudadana y los Presupuestos Participativos hacen realidad proyectos que nacen de las demandas vecinales. El nuevo parque Arene, concebido para el disfrute y el bienestar de nuestra ciudadanía, integra juegos infantiles y elementos para la práctica deportiva dirigidos a todas las edades, ampliando así la oferta de ocio existente en el barrio. Quiere ser, además, un lugar de encuentro, y convivencia. Invitamos a la ciudadanía a hacerlo suyo, cuidarlo y disfrutarlo como parte del día a día del barrio La Humedad."*

El parque se inaugurará este viernes, a las 17:00h, con el habitual corte de cinta por parte de las autoridades, un aurresku de honor, una actuación de magia y un pequeño lunch.

**4 zonas diferenciadas**

El nuevo equipamiento cuenta con una superficie de 1.370 m$^2$, con cuatro zonas bien delimitadas: dos de ellas, cubiertas, dedicadas únicamente al público infantil, con juegos, como toboganes, columpios o estructuras de trepa; una tercera alberga una pista multideporte, y la cuarta, un espacio de calistenia y otros elementos deportivos para todas las edades y para personas con movilidad reducida, que en función de su condición física pueden ir realizando diferentes ejercicios de forma sencilla.

-La zona 1 del parque acoge una pista multideporte de 22x12m, con porterías cerradas con rejilla y canastas de baloncesto.

artifiziala edukiko ditu.

- 2. zonan, 17x14 metroko dimentsioa duena, haurrentzako jolaserako elementuak jarriko dira estalkipean, 2 eta 6 urte bitartekoentzat. Eremu horretan adingabe bat baino gehiago egon ahal izango da aldi berean, eta zoladura indargetzailea izango du. Honako hauek osatuko dute, gutxienez: igotzeko egitura bat, sehaska eserlekua duen kolunpioa, eserleku hirukoitza duen zabua eta oreka, igoera eta txirrista irisgarriko jarduerak egitea bermatzen dituen jolas gunea (estalkiaren barruan zein kanpoaldean).

- 3. zonan, 5 urtetik gorako adingabeentzako hainbat joko-elementua egongo dira. Aurreko eremuaren neurri bera izango du, hau da, 17x14 m, eta gutxienez 2 txirrista, igotzeko guneak eta altuera desberdineko pasarelak izango ditu.

- 4. eremuan, 270 m$^2$-ko azalerarekin, hainbat elementu jarriko dira ariketak egin ahal izateko zintzilikatuta eta laguntzarekin, horietako batzuk mugikortasun urriko pertsonentzat pentsatuak. Era berean, kalistenia eremu bat izango da, muskuluak berotzeko eta indartzeko ariketak egiteko (batez ere gorputzaren pisuaz baliatzen den entrenamendu sistema da, indarra eta gaitasun kardiobaskularra hobetzeko).

La pista dispondrá de accesos laterales e inclusivos, y césped artificial.

-En la zona 2, cuya dimensión es de 17x14 m, alberga bajo cubierta diferentes elementos de juego infantiles para edades comprendidas entre los 2 y 6 años. Esta zona, en la que pueden permanecer varios menores a la vez, tiene un pavimento amortiguador y está formada una estructura de trepa, columpio con asiento cuna, columpio con asiento triple y un área de juegos con actividades de equilibrio, trepa y tobogán accesible (situadas tanto en el interior como en el exterior de la cubierta).

-La zona 3 acoge diferentes elementos de juego para menores a partir de los 5 años. Su dimensión es la misma que la de la zona anterior, 17x14 m, y dispone de dos toboganes, zonas de trepa y pasarelas con diferentes alturas.

-En la zona 4, con una superficie de 270 m$^2$, se han habilitado elementos para poder realizar ejercicios en suspensión y con apoyo, algunos de ellos pensados para personas con movilidad reducida. Se cuenta, así mismo, con una zona de calistenia para ejercicios de calentamiento y refuerzo muscular (un sistema de entrenamiento que se vale principalmente del propio peso corporal para mejorar la fuerza y la capacidad cardiovascular).

KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA

Getxo

bizi ezazu

OHARRA: Faxa hartzean arazoren bat eduki baduzue edo goian esandako orriak hartu ez badituzue, deitu mesedez telefono honetara: 94 466.03.20

NOTA: Si han tenido algún problema en la recepción del fax o no han recibido el número indicado de páginas, por favor contacten con el teléfono: 94 466.03.20